

FORUKO JARDUNAK

Donostia, 1979-X-28

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaunak:

Joan den Abuztuko 28tik 30era Foruko Frantziskanoetan hiru egunetako jardunak egin berri ditu Euskaltzaindiak. Bilera horiek ez dira izan, Euskaltzaindiko beste bilerak bezala, euskarari buruz deus aztertze-ko edo erabakitze-ko. Oraikoan bilerok gure barneko egoera bera aztertze-ko izan dira. Gure ajeak eta hutsak zein diren ikusi —hots, gure ahulezia, gaitzak eta akatsak—, eta guzti honi erremedioa ipintze-ko eta egoera hobetzeko, bideak bilatu; eta azkenik, guztion artean elkar hizketa eginez eta eztabaidatuz, behar diren erabakietara heldu: horra bileron helburua zein zen.

Beraz, gogoeta egiteko jardunak ziren baitipat. Gaurko uneak eskatzen digunari nola hobeki erantzun, Euskaltzaindia nola tresna bizkorrago bihurtu, gaurko eginbeharrei erantzuteko nola Euskaltzaindia gai bihurtu. Horretarako gure egituran zer aldaketa egin behar den ikusi, eta ahal dela, erabaki, etab. Horra zertarako izan diren jardunaldi horiek.

Lehen aldiz uste dut egin dituela honelako jardunaldiak gure Euskaltzaindiak; baina aspalditik somatzen zen horrelako zerbaiten beharra. Denbora berriak heldu dira, eginbeharra eta erantzunkizunak ere geroago eta larriagoak etorriko zaizkigu; agian gure egituran bertan ere badaude huts batzuk; gainera datozkigun eginbeharrei erantzuteko beharbada ez gaude ongi hornituak; hortaz landara, geron barrenean —Euskaltzaindiaren galtzarrean bertan, alegia— halako ondoez baten zantzuak somatzen dira.

Guzti hori konpontze-ko, badirudi biderik onena zela euskaltzain oso guztiei dei egitea eta bakartadezko toki baketsu batean denon artean gure problemak astintzea eta beroiei atarramendu on bat emateko soluzioak bilatzea.

Joan den Maiatzean, Iruñeko bilera izan genuenean, azaldu zen espresuki Euskaltzaindiko Zuzendaritzakoen artean bilera hauek egiteko lehen asmoa. Eta oroit naiz Leireko monasterioa aipatu zela orduan leku

egoki bezala. Baina nola Abuztuko batzarrea Gernikan egin behar zen Altuberen omenez, gero pentsatu zen hobe zela batzarre horren ondoko egunetan jardunok egitea eta hartarako tokia Gernika inguruan bilatzea. Eta hala hautatu zen Foruko komentua.

Jardunetarako deiak euskaltzain oso guzti-guztiei bialdu zitzaizkien, bileretan ukituko ziren gaiak etab. alde zurretik jakin araziz. Euskaltzain osoez gainera, zenbait euskaltzain urgazleri ere egin zitzaion deia, hots, batzorde batzuetan parte hartzen dutenei.

Zenbat bildu ginen Foruan? Hogeiren bat. Euskaltzain osoetatik frankok egin dute huts. Egia da, bestalde, horietatik gehienek beren ezin etorria adierazi dutela: edo egun horietan beste lanik zutelako edo osasun faltaz etab. etortzerik ez zutela adierazi dute. Oker ez banaiz, bilera horietara ez zutela etorri nahi garbiki eta borobilki bik jakin arazi dute (Irigarai, Labaien). Inolazko erantzunik bidali ez dutenak beste bi izan direla uste dut (Lekuona, Iraizoz; Lojendiok ere ez du erantzun, baina jakin dugunez, gaizki dago).

Nik, euskaltzainburu naizenez, deitoratzen dut Euskaltzaindiaren kontra kejak dituzten euskaltzain batzuek okasio hau baliatu ez izana. Geure barneko arazoak barnean garbitu eta konpondu behar ditugu elkar hizketa eginez, bakoitzak bere ikuspuntuak azalduz eta gauzak denon artean eztabaidatuz eta galbahetuz. Baina horretarako batzarrerara etorri beharra dago.

Foruko jardunak lehen urrats bat izan dira. Uste dut ondoko hilabeteetan han azaldu diren soluzio bideak zenbait erabakitan mamitu eta gorpuztuko direla. Baita ere uste dut, gure egitura hobetzeko, honelako bilerak noizean behin egitea probetxugarri dela. Beharbada, etorkizunean, behin baino gehiagotan jo beharko da honelako bilerak antolatzerara.

Gainerakoan, jardun haietan irakurri ziren txostenen gainean, eztabaidatu ziren puntuei buruz, zenbait problemari bilatu zitzaion irtenbideari buruz etab., Idazkari jauna mintzatuko da xehekiago.

1979.eko EUSKALTZAINDIAREN JARDUNALDIAK
(Abuztuaren 28-tik 30-era)

J. M.^a Satrustegi

Hiru egunez bildu da Euskaltzaindia Foruko Frantziskotarren etxean, orain arteko elkargoaren egoera eta eskuarteko lanak aztertu ondoan, geroari buruz bere helburuak finkatzeko asmoz.

Iragan abuztuaren 28-tik 30-era izan dira jardunaldiak. Bezperan, abuztuaren hogeita zazpian, Seber Altube euskaltzainaren mendeurrenari hasiera emateko batzarre irekia ospatu zuen Euskaltzaindiak Gernikako Juntetxean.

Euskaltzain oso guziak banan-banaka deituak izan dira bilera haue-tara, hala nola batzorde zenbaitetako idazkariak. Hameka euskaltzain oso etorri dira, eta beste biren bozkatzeko eskubidea jaso da idazkiz ezin eto-rria adieraziz.

Eskuarteko gaietan, H-dun hitzen zerrenda egiterakoan erabiliko diren oinarritzko puntuak onartu dira, batzar agiriak dioen bezala.

Asteartean, 28

1) Goizeko hamarrak eta erdi inguruan hasita, Villasantek gure artean gaur ardurarik larrienekoak ditugun arazoan laburpena egin du, gero zehatzago ikusiko ziren gaiak aurkeztuz. Zenbaitzuren kezka jabe-tuz, Euskaltzaindiak burokrazia gehiegi ez ote duen galdetu du. Izan ere ikerlana da bere helburu nagusia. Hasiak ziren lan batzutan astiro dabile-la ere salatu du.

Eztabaidatu diren punduetan, aski zabaldu gabe dauden adierazpen batzu aipatu dira. Gaur-gaurko "Euskara eta Euskalkien" arteko istiluan, herriak ez omen du Euskaltzaindiaren agerpena jaso eta nahasmendua dagoela esan da. Beste zehaztasun eta agerpen batzuekin ikastola eta alfabetatze-euskalduntzen dabiltzen talde guziei bialtzea komeni dela esan du norbaitek.

Hizkuntza arazoan, guraso eta haurren arteko etendura sortu dela adierazi du irakaskintzako batzordeko ordezkariak. Erantzun jatorren bat bilatu beharko zaio egoera horri.

2) Euskaltzaindiaren barne eraketa eta azpiegitura aztertu ditu Lizundiak. Korporazio mailan ongi ibiltzeko hutsune batzu bete beharrak ikusten ditu. Hileroko batzarrari zama arintzeko, zuzendaritzako bileren egutegia finkatu eta bere esku utzi behar diren gaien zerrenda mugatu. Ikersail eta jagonsail buru bien eginkizunak ere ez dira garbi ikusten. Erabakien onartze kontuan, batzorde bakoitzak egindako lanari *bai* ala *ez* esatea omen da, bakarrik, euskaltzainen egitekoa.

Euskaltzaindiak bere gain hartuak dituen lanei erantzuna emateko langile gehiagoren beharra ikusten du. Langile berririk ez hartzeko, nolabait euskaltzainek egin dezaketena lana, ordainduz, egin beharko litzatekeela dio. Nahi eta ez ordaindu beharrak ikusten ditu zenbait kargu.

Urte bitarik edo egitea eskatzen du, oraiko honen antzeko jardunaldiak.

Txostenaren osteko eztabaidetan, diru-kontuen begirale bat izendatzea premiazkoa dela esan da. Era berean, ordezkari guzuen arteko koordinaketa ere beharrezkoa da. Bilera bat egingo omen da langile guzietan, ordezkari bakoitzari eginkizun berezi bat emateko.

3) Itzulpenak

Euskaltzaindiari aspaldidanik datorkion itzulpenen iskanbila aztertu ondoan ikusi da, lehenik, ez dela Akademiaren eginkizunetan sartzen itzulpenak egitea. Itzultzaileen eskola sortu behar luke, edo sortzen lagundu, eta erakunde ofizial bakoitzak bere itzultzaileak izan beharko ditu.

Gero eta gehiago ugarituz doaz zenbait esaera labor —bideetako adierazpen, hiritako seinale, etab.— Batzuk uste dute Euskaltzaindiaren egitekoa dela horien itzulpena sortzea. Gehienen ustez, denborarekin finkatuz bezala hartuko ditu bere hiztegia. Bitartean, iduri bidez agertzen dira, hitzez baino gehiago.

Azteazkenean, 29

4) Euskaltzaindiak gaur bere gain hartuak dituen zenbait eginkizun utzi beharrak direla agertu du San Martinek. Irakasle tituluak, esate baterako, beste bide batez eman daitezke. Irakasle eskola sortzea izango litzateke hoberena eta geroago unibersitatearen eskuetan uztea. Alfabetatze-Euskalduntze mugimendua bera ere, Euskal Kontseilu eta Diputzaioen bidez ofizialtasunera helduerazi beharra dago.

Edozein modutan, jagonsailan liberatu bat behar beharrezkoa du Euskaltzaindiak, orain arte gertatzen ari diren gehiegikeria eta isiljokoak bideratzen joateko.

5) Ikersailako zereginak aztertu ditu Knörr euskaltzainak. Hizkuntzarekiko Atlas egiteko une egokia dela zioen, bai diru aldetik, nahiz gazte prestatuak baditugulako. Erdaldundu berri diren euskaldeetan azternak jaso beharko dira, denbora berean.

Gramatika lanak aipatu ditu, gero, aztertu behar beharreko bezala. Doinu eta azentua ere hor ditugu belarri ongi prestatuen zai; eta estilistika ia umezurtz.

Azkenekotz, hiztegiak aipatu ditu. Hori, inolako konkurrentzia zentzugabekorik sortu gabe Euskaltzaindiak egin dezaken lana ikusten du, batez ere hiztegi monografiko eta ohiturazko esamesen hiztegi aldetik.

6) *EUSKERA aldizkaria.*

Behin baino gehiagotan aipatu da, egun hauetan, EUSKERA aldizkariaren arazoa. Orain arteko gaien zerrenda osoarekin egingo delarik zenbaki bat, neurritz aldatzeko asmotan gabiltz gure aldizkaria. Egituraz eta ikuspegi osoz aldatu beharra ez ote duen, zioetan zonbaitzuk. Proposamen honela eginga zen: orain arte bezala urtean bi ale argitaratuz, zenbaki bakoitza gai bereziekin osotzea.

Alde eta aurkako iritziak jaso ondoan, honako akordio batera heldu dira batzartuak: Urteoro zenbaki batean ikerlanak, eta bestean batzarretako agiri eta bestelako erabakiak sartzea. Gaietan banaketa honelatsu egingo litzateke:

EUSKERA. I. Iker eta bilketa lanak.

EUSKERA. II. Erabakiak, agiriak eta berriak.

Bi aleak elkarrekin salduko dira, noski. Aldaketaren aldeko iritzia bototara onartu da. Batzordeaz beste alde, zuzenean aldizkariaren arduraturako den norbaiten beharra ikusi da. Beste argitalpen batzuek ere baditu gaur Euskaltzaindiak. Denen gidaritza egin lezake.

Ostegunean, 30

Ezken egunerako utzia zen Euskaltzaindiaren pertsona arazoa. Satrustegiri eskatu zitzaion txosten hau. Euskaltzaindiaren lehen denborerako egoera eta gaurkoa ez dira berdinak. Erantzunkizuna ere ezin berdina izan.

Gaur bertan egin ditzakegun izendapenak, geroari begira eginak izan beharko dute. Orain arte, gutxi edo asko, aukeratuek egin zezakeeten lanari begira, etorkizun itxaropentsu baten ametsez egin izan dira izendatze asko. Ez zen beste biderik ikusten. Horrek bere ondore onak izan ditu, akats guzien eskutik; baina, gaur, bakoitzaren lana eta merezimendu orokorrak neurtu beharko dira euskaltzain berriak aukeratzekoan.

Gaurko egoeran, beste alde, izen eskasariak ez du bere zerrendan Euskaltzaindiak: 24 euskaltzain oso, 7 ohorezko, eta 145 laguntzaile. 176 izen, beraz, ofizialki euskaltzaindian agertzen direnak.

Benetan zerbait egiten dutenak, beste alde, oso gutxi. Osoetatik, erdiak agertzen dira batzarretara; urgazleetatik, gutxiago. 1977an 57 etorri ziren urte guzian. Horietatik 25, behin bakarrik.

Edozeinek ibili ohi du euskaltzain izena, nahasmenduak sortuz.

Hori delata, laguntzaileari bere laguntza eskatzea izango litzateke eraberritzen hasteko bide bat. Beste jokabide batzu ere aipatu dira. Gaurko egoeran zer komeni den ikusi behar da.

Hitzari buruz, *euskaltzain* hitza, euskaltzain osoak bakarrik erabili dezake. Bakoitzak behar luke honetan kontu haundia izan.

Hasierako *urgazle* hitza berriz hartzea komenigarri ikusi dute bildutako gehienek. Euskaltzain laguntzaile esaeraren orde, beraz, euskaltzain urgazle esango zaie hemendik aurrera.

Euskaltzain ohorezkoa, orain arte bezala aditzera emango dugu.

Azkenekotz, badira Euskaltzaindiaren esanera lanean ari diren batzu, eta horientzat, lankidetasuna agertuko duen beste esaeraren bat beharko genuke. Lana amaitzearekin edo bere laguntza ematez uztean, ez luke beste inolako loturarik izango izendapenak.

Arautegia

Pundu hauek kontuan izanez, eta Euskaltzaindia salerosketan ondusun batzuen jabegorako gai dela adierazteko, arautegia ukitu beharra dagoela ikusi da. Legegizonen esku utziko litzateke arazoa.

Eguerdian amaitu da jardunaldietako lana, eta arratsaldean ibilaldi bat egin dute batzarkideek.